



20/2019 TXOSTENA, URRIAREN 25EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA

XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, EUSKADIKO ONDAREARI BURUZKO LEGEA GARATZEKO ERREGELAMENDUA ONARTZEN DUENA

I.- AURREKARIAK.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginak (hemendik aurrera, EOL), azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuz onetsiak, bere azken xedapenetako zortzigarrenean jasotzen du lege hori erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.

Testu bategina indarrean egon den hamabi urteotan, ikusi da Legearen xedapen batzuk teknikoki zehaztu behar direla, hala nola Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Orokorrari buruzkoak, ondasun higiezin galkor edo zerbitzurako gai ez direnei buruzkoak, jabari publikoko ondasunei buruzkoak (haien erabilerak ez badu garrantzi handirik) eta bestelako batzuk.

Gainera, ezinbestekoa da urte horietan izan diren lege-aldaketetara egokitzea. Haien artean, prozedurari dagokionez, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta funtsezkoari dagokionez, berriz, 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa, zeinak autonomia-erkidegoaren aldeko oinordetza xedatzen baitu, edo 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Ondare Publikoa sortzen duena.

Horregatik guztiagatik, Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen dekretuaren proiektua landu da, zeina ondoren aztertuko dugun.



II. – ALDEZ AURREKO GOGOETAK.

TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua dioenez, nahitaezko txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak izapide hori arautzen duten xedapenek ezarritako unean eta eran eskatuko dira.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua a) letraren 1. apartatua xedatutakoari jarraikiz:

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.

...»

Xedapen-proiektua denez, eta xedetzat ez duenez sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluaekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III. – EDUKIA.

Zati hauek ditu dekretu-proiektuak:

- Azalpen-zatia.

- Xedapen-zatia:

I. titulua. Xedapen orokorrak.

II. titulua. Ondarea babestea eta defendatzea.



III. titulua. Ondasunak eta eskubideak eskuratzea.

IV. titulua. Lotzea, atxikitzea eta herri jabariko aldaketak.

V. titulua. Jabari publikoaren gaineko baimenak eta emakidak.

VI. titulua. Besterentzea, eta jabari pribatuko ondasunak xedatzeko beste modu batzuk.

VII. titulua. Enpresa ondarea.

VIII. titulua. Sektore publikoko erakundeekin izenpetutako hitzarmenak.

Xedapen gehigarri bat, iragankor bat, indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

IV.- OHAR JURIDIKOAK.

Ez dugu ahaztu behar erregelamendu-garapenerako proiektu bat dugula aurrean. Hori horrela, darabiltzan kontzeptu eta terminoetako asko, gutxi-asko zorrotzak edo eguneratuak txosten honi dagokion ikuspegitik, garatzen duen legearenak dira; horrenbestez, hemen egindako oharra horretara egokitu beharko dira maiz.

Hortik abiatuta, dekretu-proiektuaren I. eta II. tituluek ez dakarte arazorik kontratazio publikoaren ikuspegitik.

III. tituluari, ordea, bai komeni dela zenbait termino edo ñabardura zehaztea haren II. kapituluari, «Kostu bidezko eskuraketei buruzko xedapenak» izenburukoan.

Hala, 43. artikulua, kostu bidezko eskuraketa horien «Araubide juridikoari» buruzkoa bera, 1. apartatuan, Ondareari buruzko lege autonomikoari, orobat Estatukoari, erantzuten badio ere, esaten du 1. artikuluko erakundeek ondasunak eta eskubideak kostu bidez eskura ditzaketela «kontratuen, hitzarmenen eta gainerako negozio juridikoen bidez». Dirudenez, edozer eskuraketa egin daiteke aipatutako negozio juridikoen bitartez, baina oso kontu eztabaidatua izan da –gaur egun jada argitua– ondasunak edo eskubideak kostu bidez eskuratu ahal izatea hitzarmen bitartez, eta oso ezohiko kasuetan, berriz, kontratua ez den beste edozein negozio juridiko baten bidez. Apartatu hori beste modu batera idaztea iradokitzen dugu, hau azpimarratuta: kasu bakoitzean behar bezala zehaztuta gelditu behar dela zer negozio juridiko egokituko den. Gainera, hain zabal idatzita dago, non adierazi ere ez den egiten ondasun jakin batzuk eskuratzeko administrazio kontratua behar dela, are gutxiago ondarezkoa. Horri dagokionez, aurrerago hitz egingo dugu artikulua horretan egin litekeen mugaketa; hain zuzen ere, jabari publikoaren eremuan eta ondare-eremuan sektore publikoko kontratuen arauditik salbuetsita dauden harreman juridikoei, negozioei eta kontratuei buruz aritzen garenean.

46. artikulua, «Gaitasun-arauei» buruzkoa bera, honako hau xedatzen du:



«1. artikuluan aurreikusten diren entitateek ondasunak eta eskubideak eskuratzeko ondare negozio juridikoak egin ditzakete pertsona guztiekin, baldin eta, kontratatze gaitasun orokorrak gain, dagokion negozio juridiko zehatzerako eskatzen den berariazkoa badute eta sektore publikoarekin kontratatze debeku- edo bateraezintasun-kausa batean ez badaude».

Adierazi behar dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legeak (azaroaren 8ko 9/2017), zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten den Espainiako ordenamendu juridikora, honako hau dioela 9. artikuluan:

«9. artikulua.- Jabari publikoaren eremuan eta ondarearen eremuan kanpoan utzitako harreman juridikoak, negozioak eta kontratuak.

1. Lege honetatik kanpo gelditzen dira ondare-ondasunak ustiatzeko kontratu batzuk eta jabari publikoko ondasunei buruzko baimen eta emakida batzuk, 14. artikuluan zehaztutakoez bestekoak, eta beren legeria espezifikoa izango dute araubide, berariaz lege honetako aginduak aplikatu behar zaizkiela adierazten denean izan ezik.

2. Halaber, lege honetatik kanpo gelditzen dira ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta). Aipatutako horiek guztiek kontratu pribatuen izaera izango dute, eta ondare-legeriaren pean egongo dira. Kontratu horietan soilik sartu ahalko dira atariko tituluko II. kapituluko 1. atalean araututako kontratu tipikoek berezko dituzten prestazioak, baldin eta zenbateko balioetsiak negozioaren zenbateko osoaren 100eko 50 gainditzen ez badu eta aldi berean ondare-kontratuaren ohiko prestazioarekin lotura- edo osagarritasun-harremana badu 34.2. artikuluan aurreikusi bezala».

Argitu behar dugu aipatzen duen SPKLren beraren 14. artikulua obra-emakidako kontratuari buruzkoa dela.

Bada, SPKLren 9. artikuluko negozio juridikoen mugaketa hori da etorkizuneko dekretuaren 43. artikulua erregulazioari ere aplikatzea iradokitzen duguna, eta, bestetik, SPKLtik kanpo geratu direnez jabari publiko eta ondareko ondasunak eskuratu eta besterentzeko baimenak, emakidak eta negozio juridiko gehienak, SPKLn jasotako kontratua egiteko debekuak ondare-eremura estrapolatzeari buruzko gogoeta egitea iradokitzen dugu. Debeku horiek, SPKLren 71. artikulutik 73. artikulura bitartekoetan jasoak, araututa daude eta zorrozki aplikatzen dira, kasuaren arabera, dagozkion sektore publikoan, baita kontratazio-organo jakin bati ere, denbora mugatu batez... Antza denez,



legegilearen asmoa izan da horiek zorrozki bainoago era murriztailean interpretatzea, eta haren aplikazioa SPKLtik bertatik berariaz baztertutako negozioetara zabaltzeak txosten honen edukia gainditzen duen gogoeta sakona izan beharko lukeela ematen du, lotuta baitago zigor-, zehapen- eta konstituzio-arloko gaiei, legezketasun-printzipioari eta eskubideak murrizteari; hori dela eta, aholkatzen dugu hori dekretu-proiektuari buruzko txosten juridikoan aztertzea.

Proposamen hori berrestera etorri dira SPKLren 6. artikulua berak hitzarmen batzuk SPKLtik kanpo utzi izana, eta lege beraren 26. artikulua ere esatea kontratu pribatuak – eta horiei ere egiten die erreferentzia aurretik aipatutako 9.2 artikulua– zuzenbide pribatuaren arabera zuzenduko direla beren ondoreei, aldatetari eta azkentzeari dagokienez. Kontratatzeko debekuetako batzuk kontratuaren exekuzioarengatik eta gorabeherarengatik ezarri ahal direnez, hori ere hartu behar da kontuan kontratatze debekuen araubidea SPKLk ezartzen dituen eremuez bestelakoetara zabaltzea baloratzeko orduan.

Dekretu-proiektuaren 47. artikulua honako hau dio: «Arau orokor gisa, ondasunak eta eskubideak lehia-prozeduraz eskuratuko dira, kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintzari esleipena eginez, administrazio publikoen kontratazioari buruzko arautegian aurreikusitakoari jarraikiz».

Proiektuaren barruan «administrazio publikoen» kontratazioari buruzko araudia aipatzen da zenbaitetan. Araudi hori orain funtsean SPKL denez, egokiagoa da «sektore publikoaren» kontratuei buruzko araudiaz hitz egitea.

Arau orokorraren salbuespenak 47. artikulua horretako 2. apartatuan daude, eta EOLen jasotako isla badira ere, aholkatzen dugu horiek neurritzalegi; izan ere, – proiektuaren III. tituluko II. kapitulu honetan nagusi den administrazio-kontratazioarekiko analogia kontuan hartuta– oso lausoak edo orokorrak dira haietako batzuk, eta ondorioz, aukera emango lukete ia kasu guztietan zuzenean eskuratzeko edo errentan hartzeko. Hala, adibidez, «bete beharreko premiaren berezitasuna», «merkatuaren baldintzak», «ondasuna bereziki egokia izatea»...

Halaber, 3. apartatuak zuzeneko eskuraketa edo errentamendua defendatzen du kontratu txikiak direnean (esan nahi baita, ondarezkoak), «hau da, guztizko zenbatekoa, luzapenei dagokiena barne, hogeita hamar mila euro baino gehiagokoa ez denean». Aholkatzen dugu argi adieraztea zenbateko horren barruan balio erantsiaren gaineko zerga sartzen den edo ez.

48. artikulua «Kontratazio-mahaia» izenekoa da, eta SPKLk, 146. eta 326. artikuluetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektorre Publikoaren kontratazioaren araubidea



ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak (hemendik aurrera, EAEKD), 8. artikuluan, egiten duten antzera eratzen du mahai hori. Hala eta guztiz ere, ez du horrenbesteko bermerik ematen, eta mahaiburu edo presidente jartzen du eskuraketa erabakitze eskumena duen organoaren titularra edo hark eskuordetzen duen pertsona, bakarrik presidentea eta idazkaria daudenean modu baliodunean eratzeko aukera ematen du... Horregatik, aholkatzen dugu, oro har, 2. apartatutik 5. apartatura bitartekoen ordeztan sektore publikoko kontratuei buruzko araudira igortzea.

Ondoren, 50. artikulua —jabetza eta ondasun higiezin gainerako eskubide errealak eskuratzeko espedienteari buruzkoa bera—, 2. apartatuko c) letraren lehen paragrafoan, eskatzen du eskuraketa lehia askeko prozedura bidez egiten bada, espedientean «oinarrien agiria edo dokumentu baliokidea» sartu beharko direla. Ez da agiri horren izaera zehazten, baina ondoren eginiko erreferentziak ikusita, ematen du barnean hartzen dituela administrazio-arloko kontsiderazioak zein eduki- edo teknika-arlokoak; horregatik, hori artikulua horretan horrela zehaztea iradokitzen dugu.

50. artikuluko 3. apartatuari dagokionez, berriz ere gogoratu behar dugu kontratu txikietan adierazi behar dela hogeita hamar mila euroko zenbatekoaren barruan BEZa sartzen den edo ez.

51. artikulua, «Lehia bidez eskuratzeko prozedura» izenekoak, «kontratatzaileraren profileen» iragarkia jartzeko eskakizuna jasotzen du —proposamenean, gaztelaniazko bertsioan, «perfil del contratante» ageri da, baina legezko izena «perfil de contratante» da hizkuntza horretan (euskaraz, kontratatzaile-profila)—, eta eskatzen du argitalpen hori egin dadila «administrazio publikoek duten araudian zehazten diren gutxieneko epeak errespetatuz eta kontuan izanik» (berriz esaten dugu «sektore publikokoa» izan behar dela, proiektu osoan ikusi behar da hori berriz). Iragarkiaren gutxieneko eduki bat ere adierazten du. Hori horrela, gure ustez horietan guztietan errazagoa izango litzateke, baita zorrotzagoa ere, sektore publikoaren kontratazioari buruzko araudira jotzea, 1. apartatuko bigarren eta hirugarren paragrafoen ordeztan.

Era berean, aurkeztu beharreko lehen gutun-azalaren edukiari buruzko 2. apartatuko a) letraren lehen marratxoak ere igor lezake araudi horretara. Eta hirugarren marratxoari dagokionez, behin-behineko bermeari eusteko beharrik dagoen aztertu beharko litzateke, kontratazio publikoan jada ez baita erabiltzen.

2. apartatuko b) letrak bigarren gutun-azalean jaso beharreko dokumentazioaz hitz egiten du. Proposamen ekonomikoari buruzkoa baino ez da, baina esleitzeko bestelako irizpiderik egon daitekeenez, 50.2.c) artikulua hirugarren paragrafoan adierazten duen bezala,



ohartarazten dugu haiei buruzko dokumentazioa non jaso adierazi behar dela, eta hori hartu behar da kontuan prozeduraren gainerakoan (irekierak, egiaztapenak, txostenak...).

Horrekin guztiarekin lotuta, adierazi behar da testuak une oro proposatzen duen izapidetzea paperezko formatuan dela, eta ez izapidetze elektronikoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) azken hori agindu arren. Hori kontuan hartzea proposatzen dugu, eta «gutun-azala» terminologia termino elektronikoetara ere zabaltzea (esaterako, erretilua, fitxategia, gutun-azal elektronikoa, etab.), jasota utzirik ondare-eremua herritarrei bereziki irekita dagoela (Administrazioarekin harreman elektronikoa izateko legezko betebeharrak ez duten pertsona fisikoak).

Era berean, 51. artikuluko 4. apartatutik 8. apartatura bitartekoek ere jo dezakete sektore publikoko kontratazioari buruzko araudira, «Kontratazio-mahaiaz» ere hitz egiten baita, eta hori oso termino espezifikoak da eta EAEKDK arautzen du 8. artikuluan, aurretik aipatu dugun bezala. Edo, bestela, «ondareko» kontratazio-mahai batez hitz egin beharko luke, biak bereizte aldera.

55.3 artikuluan, berriz ere nabarmendu behar dugu adierazi behar dela kontratu txikien zenbatekoan BEZa jasotzen den edo ez.

58. artikulua, errentamenduari dagokionez, hau dio 3. apartatuan:

«3. Kontratua lehia-prozedura baten ondoren sinatu bada, aldaketak ezin izango du funtsezkoa izan prozedura arautu zuen oinarri-agirian edo dokumentu baliokidean ezarritako baldintzei dagokienez».

Aholkatzen dugu zehaztea zertan datzan funtsezko aldaketa bat, eta horretarako, orientagarri izan daiteke SPKLren 205.2.c) artikulua dioena.

Dekretu-proiektuaren 60. artikulua honako hau dio:

«1. Legez hornigai-kontratutzat hartzen diren ondasunak kostu bidez eskuratzeko, herri-administrazioen kontratuei buruzko arauetan halako kontratueterako zehazturik dagoena bete beharko da.

2. Bateriaezina ez den heinean, higiezinak eta horien gaineko eskubideak eskuratzeari buruz arau honetan xedatutakoa aplikatuko zaio ondasun higigarrien eskuraketari».

Araudia sektore publikoarena da, berriz diogu, baina batez ere gogoeta egin behar da 2. apartatuaren zentzuaz, ondasun higigarriak eskuratzeko, legezko definizioz (SPKLren 16. artikulua), hornidura-kontratua baita; hori dela eta, ez dugu ulertzen zer kasutan aplikatu ahalko litekeen higiezinak eskuratzeari buruzko erregelamenduaren araudia. Aholkatzen



dugu apartatu hori beste modu batera idaztea, hornidura-kontratuari buruzko arauditik kanpo egongo litzatekeen kasu zehatzen bat adieraztea edo, bestela, baita apartatua kentzea ere.

II. kapituluaren 5. atala Jabetza gorpuzgabearen eskubideak eskuratzeari buruzkoa da. Horren barruan, 61. artikulua eskuraztea erabakitzeke eskumena ezartzen du; 62.ak, prozedura, eta 63.ak, araubide juridikoa. Horietan guztietan SPKLren 9. artikulua 2. apartatua gogoratu behar da (lehen transkribatuta), zeinaren arabera ez baitira SPKLtik kanpo gelditzen, ezta, ondorioz, kontratazio-organoari, prozedurari eta araubide juridikoari dagokienez ere, jabetza gorpuzgabeen gaineko negozio juridikoak, «ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta». Ondare-kontratuak, gainera, ez dituzte barnean hartu behar SPKLren ohiko kontratuen berezko prestazioak (obrak, zerbitzuak, bien emakidak, hornidurak eta mistoak), haiei jotzen zaien balioak ez badu negozioaren % 50 gainditzen eta, gainera, ondare-prestazioekin lotura badute eta haien osagarri badira, SPKLren 34.2 artikulua arabera («premia jakin bat betetzeko edo erakunde kontratatzailearen berezko erakunde-xederen bat lortzeko unitate funtzional gisa hartu eta tratatu behar badira»).

Dekretuaren proiektuaren 63. artikulua 4. apartatuaz ere, zeinak eskuraketa horientzat «hitzarmenaren forma juridikoa hautatzea» ahalbidetzen duen, iruditzen zaigu ñabardurak jar dakizkiokeela; izan ere, kostu bidezkoak direnez eta aldebiko izaera egonik, itxura guztiaren arabera, nekez egongo da aukera hori.

Ez diogu oharririk egin behar IV. tituluarri (Lotzea, atxikitzea eta herri jabariko aldaketak), eta, horrenbestez, V. tituluarri helduko diogu (Jabari publikoko baimen eta emakidetarako prozedurak).

Ikusi dugun bezala, baimen eta emakida horiek SPKLtik kanpo gelditzen dira haren 9. artikuluarri jarraikiz. Obra-emakidako kontratua baino ez du lege horrek arautu behar, haren 14. artikulua zehazki.

Dekretuaren V. titulu horren III. kapituluaren (Jabari publikoko baimenak eta emakidak zuzenean emateko prozedura), ikusten dugu -98. artikuluko 2. apartatuko a) letraren bigarren paragrafoa (jabari publikoko ondasunak hogeita hamar egun baino gehiagokoa ez den epean erabiltzeko baimenak, edota behin bakarrik edo noizbehinka izango diren hitzaldiak, mintegiak, edo antzekoak antolatzekeak)- eremu horretara zabaldu direla sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian aurreikusitako kontratazio-debekuak (sektore publikoaren erreferentzia nabarmendu behar dugu berriz), eta ondorioz, berriz adierazi behar dugu aurretik dekretu-proiektuaren 46. artikulua esan duguna.

Eta gauza berbera gertatzen da 99. artikulua —emakidak zuzenean emateari buruzkoa bera— 1. apartatuaren bigarren paragrafoan eskatzen duenarekin.

VI. tituluan jada («Besterentzea, eta jabari pribatuko ondasunak xedatzeko beste modu batzuk»), I. kapituluak «Kostu bidezko xedapen egintzak lehia bidez esleitzeko prozedura» arautzen du, eta horren barruan, 104. artikulua dio esleipena enkante edo lehiaketa bidez egin ahal izango dela. Terminologia Estatuko Ondareari buruzko Legetik dator, baina termino horiek ez dira jada erabiltzen sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian, eta, besterik gabe, komeni da hori nabarmentzea.

Are arazotsuagoa da, ordea, 105. artikulua «Kontratazio-mahaiaz» egiten duen erregulazioa. 48. artikuluari buruz adierazitakora jotzen dugu, hots, komeni dela sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian kontratazio-mahaien gainean eginiko erregulaziora igortzea. Eta iradokitzen dugu «ondareko», «jabari publikoko» edo dagokiona gehitzea beti kontratazio-mahaiari.

Deialdiaren iragarkiari dagokionez (107. artikulua), adierazi behar dugu gaztelaniazko bertsioan «perfil del contratante» (kontratatzailearen profila) adierazi beharrean, «perfil DE contratante» (kontratatzaile-profila) adierazi beharra dagoela, horixe baita haren legezko izena. Eta 2. apartatua arautzen duen argitalpenari dagokionez, komeni da sektore publikoaren kontratazioari buruzko araudiko prozedura irekien erreferentzia egokitzea; epeak aldatzen dira, izan ere, erregulazio harmonizatuko kontratuko prozedura irekia den edo ez, sinplifikatua izan edo ez, baita «supersinplifikatua» den ere. Eta obrak, zerbitzuak, hornidurak, emakidak... diren ere aldatuko dira epeak.

108. artikulua, berriz ere adierazi behar dugu kontratatze debekuak hedaturaz aplikatzeari buruz esandakoa, baita proposamenak paperean aurkezteko aukera emateaz adierazitakoa ere, hori ez baita legez bideragarria dagoeneko. Bide bakarra aipatu Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforma izan behar da, eta gutun-azal elektronikoetan aurkezteko sistemari jarraikiz.

109. artikulua (lizitazioa) kontratazio-mahaia eratzeaz hitz egiten du, baina ez dator bat 105. artikuluan ezarritako quorumarekin, ezta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko Legeak (urriaren 1eko 40/2015) 17. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoarekin ere. Berriz ere proposatzen dugu sektore publikoko kontratazioari buruzko araudira igortzea, halako desadostasunik eta bikoiztasunik gerta ez dadin. Eta hori 109. artikuluko apartatu guztiei aplikatzeko modukoa da, eragotziko bailitzateke, esate baterako, 4. apartatuan eskakizunerako eperik ez agertzea, besteak beste.



Ez dugu beste ezer adierazi behar IV. kapitulura arte («Ondasunak erabiltzeko baimen puntuala»), orduan berriz ere ageri baita kontratzeko debekurako kausarik ezaren erreferentzia (125. artikulua).

V.- ONDORIOAK.

Dekretuaren proiektuaren edukiak, sektore publikoko kontratazioaren analizatutako alderdiei dagokienez, aintzat hartzen du, oro har, sektore publikoko kontratazioaren arloko legeria eta gainerako araudia, bai eta sektore publikoko araubide juridikoari buruzkoa da ere.

Hori esanda, proiektuaren testuari buruzko zenbait gomendio egin direnez, eta hemen adierazitako zehaztapen eta oharrak aintzat hartuko direlakoan, aldeko txostena ematen zaio Euskadiko Ondareari buruzko Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen Dekretu Proiektuari.